

Adan eta COVID-19a



ARITZ GALARRAGA

Gaixotu zen Adan pandemiaren bigarren neguan, eta ez tulka, buruko minez, hogeita hemeretzi sukarrak, negarri eman zion Magdalenak –eta urtezaharreko kotiloia galduko zuten guztiek– eman bezala, eta Evagana zuzenduz “positibo naiz” esan zion oihuka, “konfinatu beharko gara, maite; Kainek kutsatu nau, seguru, sintomak zeuzkan”.

“Eskerrak txertatuta gauden” pentsatu zuen Evak, eta ez zen batere harritu hitz haiekin, positibo, konfinatu, kutsatu, sintoma, eta zaharrak iruditu zitzaizkion, hizkuntza ezagun batekoak, eta ezpain artean ibili zituen maiz, positibo, konfinatu, kutsatu, sintoma, harik eta ulertzen ez zituela iruditu zitzaion unerarte. Ordurako sendatua zegoen Adan, eta poz-ozik zebilen.

Pandemiaren bigarren neguko lehen gertaera hark segida luzea izan zuen, eta lehengoz gain, positibo, konfinatu, kutsatu, sintoma, Adan zein Evak hitz dagoeneko zaharrak erabili behar izan zituzten, pcr, aztarnari, intzidentzia, bideodei eta beste ha maika, autotest, negazi, flurona, osasungintza publiko; hiztegia hazten zenarekin batera, zimurtuz joan zitzaizen azala.

Zahartu zen erabat Adan, sentitu zuen hurbil heriotzaren ordua, eta Evarekin elkarrizketa sakon bat izateko gogoia sortu zitzaion; “Eva”, esan zion, “ez zen ezbehar bat izan pandemia gertatzea; oinazeak oinaze, minak min, gure Abelen zoritxarra halako zoritxar –Kainek hil baitzuen, noski, txertoen inguruko desadostasunengatik–, bizi izan duguna izan da, zentzurik nobleanean esanda, bizitza”.

Adanen hilobi atarian malko arruntak ixuri ziren, gatz eta urezkoak, lurrera erortzerakoan hiazinto edo arrosa alerik eman ez zutenak, eta Kain izan zen, paradoxaz, negarrez bortitzen puskatu zena; gero Evak irribarre xamurrez gogoratu zuen Adanen lehen COVID-19a eta halaxe, lasai, etxera joan, eskuak ondo garbitu, metro eta erdiko distantziara eseri, eta salda be-roa hartu zuten, eta txokolata. ●



COVID-19

Patenteetatik libre dagoen COVID-19aren aurkako txerto berri bat sortu du Texasko haurrentzako ospitaleko txertoen garapenerako zentroak (AEB). Indiak dagoeneko onartu du txerto hori erabiltzeko emergentziarako baimena eta beste herrialde batzuetara laster zabaltzea espero dute.

Gaztetxea

Xiberoko Botza eta Zinka ostatuaren gibelean, Mauleko Victor Hugo karrikan dagoen zapata lantegi ohia zaharbertzen ari dira zenbait herritar auzolanean. 40 urte baino gehiago abandonaturik izan den eraikina gaztetxe bilakatu nahi dute, besteak beste. Proiektuak Üsina du izena.

Hezkuntza

Gutxienez 800 irakasle daude bajaran EAEko ikastetxeetan. Eusko Jaurlaritzak COVID-19ari lotutako neurri berriak jakinarazi ditu eskolen itzulerarako: “Burbuilak” itzuli dira, ez dira kontaktu estuztat hartuko ikasgela bereko beste haurrak eta eskola kiroleko lehiaketak debekatu dituzte.